

IRATI

POR S. GARMENDIA

Irati! Toki ederrik balitz, auxen liteke toki ederra! Arkadia zoragarri bat dirudi ango parageak. Ez fabrikarik, ez iskanbillarik, pagadien gaiñetik egaka dabilten sapelatsen da belatxingen txioak besterik ezta entzuten.

Pagadiaren oñean Irabia-ko pantanoa, ur putzua. Noranai jo eta gure begiok argiz eta kolorez aseko zaizkigu. Denetik dago an: zuaitz aundiak, errekazulo amorrai egazti, basurde eta mendi altutxorrotxak.

Goizean goiz eguzkia atera zaigua Ori-n gaiñetik sua dariola. Irabaia-ko pantanoaren muturrean txintxilaka dagoan Lorentzo Juango-n alargunaren etxea utz dezagun atzean eta jarrai dizaiogun Irati lagcari ondo-ondotik, eguzkia sartzen dan aldetik, eta pago-lizar baso ikusgarriak pasatuaz arnasbatean gera Prantziaren mugan. 225 mugarria. Bukatu da basoa, atzean utzi degu lagoa. Eztago putzurik, bañan jarrai dizaiogun beitik gora, lagora ura ekartzen duan errekatxoari eta berealaxen gaudeke, amar minutu barru, etxe baten aurrean. Baxenabarren gaude. Etxe ori piscifatoria bat dezute eta Donibane Garazi-ko mutil gazte jator batek, ezpainean irria, diesolik begikoena egingo dizute.

Gain begiratu bat eman piscifatoriako amorraiei eta, jo zagun aurrera. Bide ona degu. Leennago mandazaiena izandako bidea; gaurregun jeeps oieta-ko asko ibilli oi dira aidoso mendi-bide extu ortan. Minutu batzu geroago Artxilondo-ko malloetan, zelaietan gaude. Ura tokianen ederra! Txabol ta borda mendiaren maldan barreatuta. Esterenzubi eta Mendibe-ko artzaiak, begiak erne, abaroan dauden artaldeak zaintzen. Ba-dira aien artean Nevada-n artzaingoan ibillitakoak; toki auek ez omen die batere zor Ameriketan ezagutu zituztenei! Bizitza lasaia ta oparoa daramate orain, ez Amerikan bezela: tristea ta bakartia.

Kaiku bete esne edan ondoren, artzaiak esango digute nundi-nora ibilli: jeeps itxusi oiek kurrinka-karranka ibilli oi diran bidetik jarrai dezagun. Ibilli eta ibilli, igo eta igo, elduko gera azkenik mendi bizkar batera. Bizkar-ontan amaika cromlechs daude an da emen zabaldua, zein baiño zein ego-

kiagoak. Begien aurrean daukagu Okabe. Bular auspoak aizez bete, makilla eskuan estutu eta berealaxen gera Okaben tontorrean. Eta ura tokia! Ura ikuspegia! Begietan satorrak aiña argi idukitzea aski da Ori mendi ikaragarria, Abodi mendia eta Irati-ko baso zabala ikusteko. Bertan-bertan daukagu. Naparroa-ko mendiak eta Baxenabarre-ko zelai ta ordekek urrutixea-go, eta an atzean Kantauri itxasoa, gandu tartean, urdiñ-beltx iduri.

Begiei ase-bete bat eman ondoren, Irati-Sorora abiatu gaitezen. Emendik aurrera eztago belardirik, eztago argi-unerik: baso itxi-itxia da dena. Pedro jaunaren etxean gera berealaxen, Gizon jatorra, mugako bide txior ta exkutu guziak ondotxo ezagutzen dituena. Ostatu ona ta mai oparoa. Gaua oe goxoan anka-zabalik pasatu ondoren, biamonean betarik izan ezkeru, Irati-Soron dauden artzai txabolak ikusmiratu ditezke, baita ere Escaliers tontorrera igo. Etxerakoan, Ur-Beltxa deritzaion erreka ur bizie; jarrai, ezker aldetik beti, eta iritxiko gera alako batean 229 mugarrira. Toki ontan, Españiko mugan, pasa dezagun ibaia alde batetik bestera eta segi dezaiozun eskubi aldetik ibai berari. Inun bizitzekotan, Basajauna antxen bizi bide da. Baso ederragorik ezta amestu ere! Ba-dira marrubiak esku-betean, ba-dira perretxikoak, eta bada batez ere itzalik pranko! Irati-Sorotik atera eta bi ordu terdi barru ortxe-ortxe, basoaren erdian argi-une bat arkittuko degu. «Na. Sa. de las Nieves» deritzaion ermita bat ikus diteke muño batean gainean. Ermita apaiña apaiñik ba-da! Sartu atera bat egitea merezi du. Andik ez urruti Teofilo jaunaren etxea dago. Gizon prestua ta atsegiña. Bazkari oparoa, mai zabala. Bazkalondoan, bertsoak eta abar. Gogoan degu oraindik, etxe artan Teofilo Etxeberri orri bein batean entzun genion kantua. Otxagabi-ko mutillak, naiz ta euskerarik ez jakin, Eguberritan kantatu oi dutena dezute. Or doa, bateon bati atsegin izan lezaiokelakoan.

Emena, bide-zabala asten da. Bidez-bide abittu eta pantanoan gaude us-tekabean, Berzal-en etxean ain zuzen. Zubi extu pat pasatu, lagoari eguzkialdeti jarrai, eta orra Antxorenan etxean. Patxi jaunak eta aren emazteak ondo artuko gaituzte. Zatoari muxu bat eman, ezpaiñak igurtzi, eta uste izan baño len, Juango-nean gaude berriro. Bukatu da gure ibillaldia. Irati aldean egin ditekean ederrenetakoa noski.